

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2306

*435/2023 EBAZPENA, apirilaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko dietetikako Teknikari Espezialista kategoriarako.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 273/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko Dietetikako Teknikari Espezialista kategoriarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko Dietetikako Teknikari Espezialista kategoriarako, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan, data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 6a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 273/2021 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 6ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 6ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldezturik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko ekainaren 6a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAr argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

## ERANSKINA

## DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

LANPOSTU FUNTZIONALA: DIETETIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak-Endokrinologia eta Nutrizioa / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Kanpo-kontsultak-Ospitale kanpoko kanpo-kontsultak-Endokrinologia eta Nutrizioa / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Arabako Errioxako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota
1	Debabarreneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Eibarko Ospitalea-Eibar / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak-Endokrinologia eta Nutrizioa / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
2	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Orokorrak-Sukaldea-Sukaldea / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota